


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko martxoan, berriz ere behera egin du Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak, eta **6.615 langabe zenbatu dira Donostian (2.921 gizon eta 3.694 emakume), otsailean baino 122 pertsona gutxiago.**

- Langabezia **% 1,8 egin du behera otsailaren aldean.**
- Langabezia **% 5,5 egin du behera 2024ko martxoaren aldean.**

Martxoan emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak, otsailarekin alderatuta, behera egin duen arren, jaitsiera hori nabarmenagoa da gizonen kasuan (% -2,1; % -1,6 emakumeen kasuan).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du ere, % 5,5 (388 langabe gutxiago). 2024ko martxoarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak nabarmen jaitsiera handiagoa izan du emakumeena baino (% -7,0 gizonetan eta % -4,4 emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,2	7,8	9,7
Gizonen langabezia indizea	6,6	6,6	8,1
Emakumeen langabezia indizea	7,9	9,0	11,2
Genero arrakala	1,26	2,47	3,09

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea % 7,2ra jaitsi da (otsailean baino ehuneko 2 puntu gutxiago) % 6,6 gizonen artean eta % 7,9 emakumeen artean (ehuneko 1,26 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,8	-1,9
Donostia	7,2	-2,4
Bizkaia	10,5	0,8
Bilbo	12,3	2,6
Araba	10,9	1,2
Gasteiz	11,3	1,6

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.615	% 1,8	-% 5,5
Gizonezkoak	2.921	% 44	-% 7,0
Emakumezkoak	3.694	% 56	-% 4,4
Gipuzkoa	28490	-% 0,5	-% 4,1
EAE	108.314	-% 0,1	-% 2,8

Otsailaren aldena, langabeen kopuruak behera egin du Gipuzkoan eta EAEn ere (- % 0,5 eta - % 0,1).

2024ko martxoarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (-%4,1 eta -%2,8), baina jaitsiera horiek Donostiakoak baino apalagoak dira (- %5,5).

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2025 1. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,2 martxoan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa dela, 2025ko lehenengo hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duen lurralde historikoak. Euskal hiriburuen artean berriz Gasteiz da Langabezia tasa txikiena duena.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko lehenengo hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	6,1	5,7
Donostia	7	7,2	7,1
Bizkaia	8	8	8
Bilbo	8,7	9,3	9
Araba	5,8	6,5	6,1
Gasteiz	6,4	6,7	6,5
EAE	6,8	7,1	7

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko lehenengo hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,7	53,3	56,9
Donostia	61	53,5	56,9
Bizkaia	59,4	51,5	55,2
Bilbo	60,4	51,8	55,9
Araba	62,2	51,4	56,6
Gasteiz	62,4	50,5	56,2
EAE	60,2	52	56

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko lehenengo hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,4	50,1	53,6
Donostia	56,7	49,6	52,8
Bizkaia	54,6	47,3	50,8
Bilbo	55,1	47	50,9
Araba	58,6	48	53,2
Gasteiz	58,4	47,1	52,6
EAE	56,1	48,3	52,1

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, 2025eko martxoan:

- 55 urtetik gorako 2.296 langabe erregistratu dira Lanbiden (-30 otsailaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.497 langabe erregistratu dira Lanbiden (-29 otsailaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.170 langabe erregistratu dira Lanbiden (-37 otsailaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.139 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-36 otsailaren aldean).
- 25 urtetik beherako 513 langabe erregistratu dira Lanbiden (+10 otsailaren aldean).

Langabeen kopuruak behera egin du adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 54,8	% 45,2	-9,6
25 eta 34 urte bitartekoak	% 48,8	% 51,2	2,4
35 eta 44 urte bitartekoak	% 39,5	% 60,5	21,0
45 eta 54 urte bitartekoak	% 43,6	% 56,4	12,8
55 urtetik gorakoak	% 42,2	% 57,8	15,6

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datuek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 21.0 puntukoa da.


Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalki emakumei seme-alaben zaintza eta heziketan erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketak maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorakoetan adin-tarteetan) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeek enplegua lortzea zailtzen duten oztopoak eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeek sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 18 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 43,6k derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 6,7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,3	%54,0	%54,6
35 urtetik beherakoak	%25,0	%26,6	%25,6
Iraupen luzeko langabezia	%43,3	%44,6	%48,5
Atzeritarrak	%15,6	%21,1	%19,4
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%17,5	%16,3	%14,9
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,0	%11,3	%11,3
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,6	%52,7	%54,9

Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBTik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 18,0), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 16,3) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa da (% 14,9).*

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailerek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Martxoan, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak behera egin duen hilabetean, **emakumezkoen kontratazioa gizezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, martxoan, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 52), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 34 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 11,8 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Martxoan 7.430 kontratu sinatu dira, hau da, otsailean baino % 15,3 kontratu gehiago (986 kontratu gehiago).

2024ko martxoaren aldean, 420 kontratu gehiago sinatu dira, hau da, kontratazioa % 6 hazi da.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.183 %42,8	4.247 %57,2	7.430
Aldi baterakoak	2.422 %42,8	3.235 %57,2	5.657
Mugagabeak	761 %42,9	1.012 %57,1	1.773
Lanaldi partziala	1.088 %32,8	2.225 %67,2	3.313
Lanaldi osoa	2.095 %50,9	2.022 %49,1	4.117

Kontratu horiekin 5.285 pertsona kontratatu dira, hau da, otsailean baino % 14,3 gehiago (663 pertsona gehiago).

2024ko martxoaren aldean 131 pertsona gehiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopurua % 2,5 hazi da.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu urtarrean.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.264 %42,8	3.021 %57,2	5.285
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4	1,4	1,4
24 urtetik beherakoak	550 %45,0	673 %55,0	1.223
25 eta 34 urte bitartekoak	698 %45,5	837 %54,5	1.535
35 eta 44 urte bitartekoak	382 %40,0	574 %60,0	956
45 eta 54 urte bitartekoak	418 %40,7	609 %59,3	1.027
54 urtetik gorakoak	216 %39,7	328 %60,3	544
Atzerritarrak	509 %45,0	622 %55,0	1.131

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen % 23,9 mugagabeak ziren (otsailean baino ia ehuneko 2 puntu gehiago).
- Sinatutako kontratuen % 44,6 lanaldi murriztukoak dira. Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 67).
- Kontratuen % 52 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 30 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 60 emakumeak dira.
- Kontratatutako pertsonen % 21,4 atzerritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen % 55 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua nabarmenki handitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 17,3** sinatu ditu (%13,7 otsailean).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 30,3** sinatzen ditu (% 23,7 otsailean).
- Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugababeen bolumen handiena**, 538 kontratu mugagabe (389 otsailean).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 42 mugagabeak dira** (%44 otsailean)
- Martxoan kontratazioaren **partzialtasuna murriztu egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuen % 57 lanaldi partzialekoak dira (%57 urtarrilean eta %62 otsailean).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 9,9 sinatu ditu** (% 13,7 otsailean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 12,1** (% 15,4 otsailean) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 114,1** sinatu ditu (% 17 otsailean).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 29 mugagabeak dira** (% 26 urtarrilean eta %30 otsailean).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 63 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 otsailean).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (0,1%)	100%	0%
Eraikuntza	60 (3,4%)	92%	8%
Industria	44 (2,5%)	66%	34%
ostalaritza	538 (30,3%)	50%	50%
Merkataritza	215 (12,1%)	36%	64%

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	75 (4,2%)	33%	67%
Osasuna eta gizarte zerb.	146 (8,2%)	22%	78%

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	409 (23,1%)	31%	69%
----------------------	-------------	-----	-----

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (0,0%)	100%	0%
Eraikuntza	9 (0,3%)	67%	33%
Industria	85 (2,6%)	69%	31%
ostalaritza	736 (22,2%)	36%	64%
Merkataritza	468 (14,1%)	31%	69%

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	313 (9,4%)	26%	74%
Osasuna eta gizarte zerb.	602 (18,2%)	17%	83%

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	815 (24,6%)	35%	65%
----------------------	-------------	-----	-----

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,4 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: **Industria, hezkuntza, eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean** (sektore horietan sinatutako kontratuen % 84, % 86, eta % 88 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan eta hezkuntzan. Gainera, osasun sektorean, non kontratuen % 50 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 83 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).


Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak (% 0) industriak (%29) eta eraikuntzak (% 6) eskaintako kontratazioan . Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 73 eta osasun-sektoreko kontratuen % 76 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonei zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduera intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (389 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (37 kontr.), higiezin-jarduerak (3 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.259 kontr.), administrazioa publikoa (36kontr.), beste zerbitzu batzuk (101 kontr.) eta etxetako jarduerak (160 kontr.).

DSBEaren hartzaileak

Martxoan zehar **3.505 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (otsailan baino 16 pertsona gehiago).




Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 59,3 emakumeak dira**.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48,6 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 21,7k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 29,23 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,9	%0,5
20 - 24 urte	%2,3	%2,6	%2,7
25 - 29 urte	%4,7	%5,2	%5,1
30 - 34 urte	%6,5	%7,7	%7,5
35 - 39 urte	%8,3	%9,6	%9,4
40 - 44 urte	%8,9	%10,7	%10,5
45 - 49 urte	%10,0	%11,5	%10,8
50 - 54 urte	%10,5	%11,2	%10,7
55 urtetik gora	%48,6	%40,6	%42,9
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,4	%61,2	%58,9
Batxilergoa	%9,0	%6,8	%6,9
Lanbide Heziketa	%21,7	%17,9	%20,2
Unibertsitatea	%7,6	%4,6	%4,9
Informaziorik gabe	%8,3	%9,5	%9,1
Lanaren osagarritasuna	%21,7	%21,0	%22,1
Oinarritzko DSBE modalitatea	%78,3	%79,0	%77,9
Gizonak	%42,0	%42,2	%42,0
Emakumeak	%59,3	%57,8	%58,0

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	132	%0,94
Altza	19.517	565	%2,89
Amara Berri	29.377	410	%1,40
Antiguo	13.754	130	%0,95
Añorga	2.448	30	%1,23
Ategorrieta-Ulía	3.874	70	%1,81
Centro	21.352	342	%1,60
Egia	14.208	339	%2,39
Gros	17.563	271	%1,54
Ibaeta	9.721	123	%1,27
Igeldo	1.040	6	%0,58
Intxaurren	15.010	514	%3,42
Loiola	6.073	180	%2,96
Martutene	2.592	79	%3,05
Miracruz-Bidebieta	8.565	290	%3,39
Miramón-Zorroaga	2.302	24	%1,04
Zubieta	-	-	-